NEXT GENERATION EU (EEEP -NGEU) EUROPAR FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO ERREKUPERAZIO, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLAN EUROPARRAREN ESPARRUAN AUKERAK DETEKTATU, PROPOSAMENAK IDATZI ETA AURKEZTU ETA PROIEKTUAK BERRIKUSTEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Next Generation EU (EEEP-NGEU) europar funtsez bidez finantzatutako Errekuperazio, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Europarraren esparruan aukerak detektatu, proposamenak idatzi eta aurkeztu eta proiektuak berrikustea da kontratuaren xedea.

Donostiako Sustapena S.A. (hemendik aurrera, Donostiako Sustapena), EEEP-NGEUrako finantziazioa biltzeko lanen koordinatzailea izanik, arduratuko da lizitazio honekin lotutako jarduerak udaleko departamentuen eta udal enpresen/erakundeen artean koordinatzeaz.

Zehazki, lan hauek egin beharko dira:

1) Donostiako Sustapenaren eta Donostiako Udaleko departamentuen eta udal enpresen/erakundeen interesekoak diren alorretan **finantziazio aukerak detektatzea**. Hain zuzen, EEEP-NGEU esparruko garapen ekonomikoa, garraioa, mugikortasuna, ingurumena, digitalizazioa, energia eraginkortasuna, turismoa eta gai sozialak aztertu beharko dira. Zehazki, enpresa esleipendunak honako jarduera hauek eraman beharko ditu aurrera:

- Finantziazio aukerak identifikatzea garapen ekonomiko, ingurumen, mugikortasun, garraio, energia eraginkortasun eta digitalizazio arloan, albo batera utzi gabe Donostiako Sustapenaren, Donostiako Udalaren eta haren udal enpresen/erakundeen interesekoa izan daitekeen beste edozein alor.
- Deialdiak argitaratu aurretik, EEEP-NGEUri buruzko informazioa bidaltzea etengabe: martxan dauden deialdiei buruzko informazioa, deialdien zirriborroak, informazio buletinak eta etorkizunean egin beharreko lana barne mailan antolatzeko eta barne planifikazio egokia egiteko beste edozein informazio.
- Etengabeko informazioa EEEP-NGEUren esparruan egiten diren deialdiei buruz, estatu mailako nahiz Autonomia Erkidegoko deialdiak argitaratuz doazen neurrian, lehen aipaturiko alorretan eta Donostiako Sustapenarentzat, Donostiako Udalarentzat eta haren udal enpresa/erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeen alorretan, ezaugarri hauek ere kontuan hartuta: helburua, jarduerak, iraupena eta aurrekontua, bai eta hurrengo urteetan martxan jarriko diren europar programa eta deialdien aurreikuspenak eta haiekin lotutako egutegiak, ekitaldiak eta berri interesgarriak.
- Estatu mailan nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan EEEP-NGEU Errekuperazio Planaren esparruan egindako deialdiak aztertzea, balizko deialdien artetik, Donostiako

Sustapenarentzat, Donostiako Udalarentzat eta haren udal enpresa/erakundeentzat interesgarriak izan daitezkeen jarduerekin bat datozenak aukeratzeko.

- Donostiako Sustapenarekin eta Donostiako Udaleko departamentuekin eta/edo udal enpresekin/erakundeekin taldeko eta banakako bilerak egiteko lan-prozesu bat zehaztu beharko da.

Lan hori aurrera eramateko, enpresa esleipendunak gehienez 465 ordu beharko dituela kalkulatzen da.

2) 4 proposamen idatzi eta aurkeztea aurrez aipaturiko alorretan edo interesgarritzat jotako beste edozein alorretan, baldin eta Donostiako Sustapenak eta/edo Donostiako Udalak eta haren udal enpresek/erakundeek EEEP-NGEUren esparruko finantziazio deialdi zehatzetan parte hartzeko duten interesa justifikatzen bada.

Hori egin aurretik, eta aurkeztuko diren proiektuak kontuan izanik, proiektu bakoitzerako aurreikusitako ordu kopuruaren banaketari eta aurrera eraman beharreko jarduera bakoitzari buruzko proposamena egin beharko dio enpresa esleipendunak Donostiako Sustapenari. Proiektua aurrera eraman aurretik, egiaztatu egingo da informazio hori eta Donostiako Sustapenaren oniritzia izan beharko du.

Donostiako Sustapenarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla medio proiektua/k aurkezten ez badira, ezin izango da kontzeptu horrekin fakturatu, eta ez du baliorik izango Donostiako Sustapenak proiektua martxan jarri aurretik aurkeztu eta onartutako lan-orduen banaketari buruzko proposamenak.

Zehazki, lan hauek egin beharko dira:

1. Enpresa esleipendunak Donostiako Sustapenarekin batera zehaztuko du −Donostiako Sustapenaren, Donostiako Udalaren eta haren udal enpresen/erakundeen interesen arabera eta proiektua aurkezten den deialdiaren arabera−, aurkeztutako proiektuaren ideia nagusia, baita helburua, emaitza eta deialdiaren eskakizunen arabera espero diren inpaktu kuantifikagarri zehatzak ere.
2. Barne mailako lan-sistematika bat proposatu beharko da, lehenetsitako deialdietara egokitutako eduki berriak sortzeko (aldizkako bilerak, proiektuak sortzeko dinamika eta metodologia berriak...)
3. Praktika egokiak edo antzeko proiektuak bilatu behar dira, aurkeztu beharreko proiektuaren edukia hobeto garatu ahal izateko.
4. Enpresa esleipendunak aurkeztutako proposamenetan parte hartzen duten erakundeei buruzko informazio teknikoa bildu beharko du (Donostiako Sustapena, Donostiako Udala eta/edo haren udal enpresak/erakundeak), organismo kofinantziatzaileari aurkeztu beharreko memoria egin ahal izateko.
5. Proiektuaren ideia nagusiaren laburpena.
6. Proiektuaren ideia deialdiaren kudeatzaileekin parekatu beharko da, baldin eta haiek horretarako aukera ematen badute.

7. Proposamenari balioa ematen dion eta proposamena hobetzen laguntzen duen informazio teknikoa eman behar du enpresa esleipendunak (arlo horretako proposamen aitzindariak, aurretiazko esperientzia, helburuak, kontingentzia plana eta eginkizun teknikoen deskribapena). Ezagutza tekniko gisa ulertzen da −deialdiarekin loturiko ezagutzaz gain− proiektu jakin batekin lotutako ezagutza espezifikoa, zeinaren bidez balio gehigarria ematen baitzaio proiektuari eta proiektuaren barruko jarduerak zehazten laguntzen baitu.
8. Enpresa esleipendunak proposamenaren alderdi ez-teknikoekin lagunduko du; horien artean, ezagutzaren kudeaketa, merkatua, emaitzen ustiapena, ingurumen alderdiak, alderdi sozialak eta emaitzen zabalkundea.
9. Bazkide potentzialak bilatu beharko dira, baldin eta beharrezkoa bada (taldeko proiektuak).
10. Donostiako Sustapenarekin egindako proiektuaren aurrekontua diseinatu beharko da, Donostiako Sustapenaren eta proiektuko bazkideen adostasunarekin (baldin eta bazkide gehiago badaude, taldeko proiektuen kasuan).
11. Adierazitako informazio guztia biltzen duen amaierako proposamena idatzi beharko da. Proiektuaren zirriborroa ere egin beharko da, Donostiako Sustapenak eta proiektuaren gainerako bazkideek baliozkotua .
12. Bazkideen zeregin banaketaren proposamena eta planteamendua egin beharko da, bazkide bakoitzaren ezagutza eta proiektuko jarduerak kontuan izanda. Horretarako, kasu bakoitzaren aurretiazko esperientzia aztertu beharko du enpresa esleipendunak, proposamena arrazoitzeko.
13. Enpresa esleipendunak ziurtatu behar du betetzen direla Europar Batasuneko araudia eta proiektua aurkezteko baldintzen arabera aurkeztu beharreko formularioak.
14. Azken proposamena aurkeztu beharko da, organismo kofinantzatzaileak zehazturiko epe eta bitartekoen arabera (plataforma, formulario ofizialak), eta proposamen horretan, aipatutako informazio guztia bildu eta dagozkion baldintzak bete beharko dira.

Proiektua onartzen bada, negoziazio fasean zehar eta kontratua sinatu arte, honako jarduera hauek egin beharko ditu enpresa esleipendunak :

1. Aldatutako memoria idaztea eta ebaluatzaileek eta proiektua kudeatzen duen administrazioak adierazitako aldaketak egitea eta, horretarako, beharrezkoa den informazioa lortzea proiektuko bazkideen aldetik.
2. Jasotako iruzkinak aztertu eta informazioa bazkide guztiei helaraztea. Hori kontuan izanik, ebaluatzaileen iruzkinak biltzen dituen txosten bat idatzi behar du enpresa esleipendunak, eta bazkide guztiei helarazi behar die.
3. Bazkide guztien informazioa bildu, berrikusi eta aurkeztutako proiektuaren bertsio berri batean txertatzea. Informazio horrekin, enpresa esleipendunak aurkeztutako proiektua eguneratu behar du, eta berriro bidali behar dio erakunde kofinantzatzaileari.
4. Proiektuaren segimendua egitea erakunde kofinantzatzaileak kontratua sinatu arte.

Lan hori egiteko, enpresa esleipendunak gehienez 1.180 ordu beharko dituela kalkulatzen da.

3) Donostiako Sustapenak eta/ Donostiako udalak eta/edo haren udal enpresek landu dituzten eta EEEP-NGEU esparruan aurkez daitezkeen **5 proposamen berrikustea**, deialdi espezifikoetan adierazitako irizpideak betetzen diren eta proposamenak irizpide horiekin bat datozen aztertuz.

Donostiako Sustapenaren, Donostiako Udalaren eta haren udal enpresen/entitateen intereseko arloetako **finantziazio aukeren detekzioa**ren esparruan aukeratu ahal izango dira deialdi interesgarriak. Erakunde horiek beren proiektu proposamenak idatzi ahal izango dituzte, eta beren bitarteko propioak erabili ahal izango dituzte proiektu horiek martxan jartzeko finantziazioa bilatzeko.

Zehazki, lan hauek egin beharko dira:

1. Donostiako Sustapenak eta/edo Donostiako Udalak eta/edo haren udal enpresek/erakundeek landu dituzten eta NGEU Errekuperazio Planaren finantziazio deialdietan aurkez daitezkeen proiektuak berrikustea eta deialdien irizpideekin bat datozen aztertzea, Donostiako Sustapenaren eta enpresa esleipendunaren artean adostutako parametroetan oinarrituz.

2. Enpresa esleipendunak teknikoki eta ekonomikoki berrikusi beharko du proposamena, eta aurkezteko aukeratutako deialdiarekin bat datorren aztertu.

3. Proposamenak 1-3 aldiz berrikusi beharko dira, eta, horretarako, proposamena aurkezteko aukeratutako deialdiaren epeei dagokion egutegi bat zehaztu beharko da.

4. Berrikuspenean, proposamenean jasotako informazioa egokia den aztertuko da, eta edukia aukeratutako deialdira egokitzeko beharrezkoak diren hobekuntza proposamenak egin beharko dira (beharrezkoak badira).

Lan hori egiteko, enpresa esleipendunak gehienez 275 ordu beharko dituela kalkulatzen da.

Donostian, 2021eko urriaren 7an,

MARIA SOLEDAD GARMENDIA BELOQUI - 15968224Z
2021.10.13 13:49:48 +02'00'

Marisol Garmendia Beloqui
Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateko presidenteordea